

# Euskal mafia



**AINGERU EPALTZA**  
IDAZLEA

**B**erria-n irakurri dugu. Dave Bieter, Boiseko jarduneko alkate, “euskal mafiarekin” lotu dute bere aurkari politikoez Idahoko hiriburuko alkatetzarako hauteskunde kanpaina. Euskal jatorriko alkateak, berriz, hitz horiek onartezintzat jo ditu, eta barkamena eskatzeko galdegin du, bera ez ezik euskal amerikar komunitate osoa iraintzen dutelakoan. Lerro hauek idazteko tenorean ez dakigu zer erantzun izan duen Bieterrren eskaerak, ezta Boiseko alkatetzak haren eskutan segitzen duen. *Berria*-ko artikulua, nolahi ere, ez zuen argitzen zehazki zeri erraten zioten “euskal mafia”.

Gure berun-urteetan, prentsa espainiarrean maiz samar agertu den kontzeptua da euskal mafia. ETAr horrela deitu izan zaio, haren metodoak –garuneko tiroa, zerga iraultzailearen xantxia– Siziliako *Cosa Nostra*-renekin parekatu nahirik. “Dena ETA da” teoria hedatuz bezala, ezker abertzale osora zabaldu zen delako izendapena. Azkenean, abertzaletasunarekin edo, bertzerik gabe, euskalduntasunarekin loturiko edonor eta edozer bilakatu zen zutabegile edo

*Hitztripu* batekin hasi naiz lerro hauek idazten. Irakurleak begi parean duen izenburua idatzi nahi izan dudana lehen kolpean, bere kasa ibili zait gogo barrena

tertuliano batzuentzat “euskal mafia”. Zenbait jenderen eldarnio gaiztoenetan, Euskal Herriko gizartean ez ezik Estatu estamentu eta erabakiguneetara alegatzen ziren delako erakundearen garroak. Maila apalagoan izanagatik, Nafarroan horrela bataiatu izan du iritziermaile eskuindar batek baino gehiagok herrialdeko euskal lobbygintza herabea.

Gisako zerbaitez ari ziren Boisen Bieterrren aurkariak? Auskalo. Literaturari, zinemari eta telebistari esker aspaldi gureganatu genuen hainbat mafia “nazionalen” existentzia Ameriketako Estatu Batuetan. Italiarra, famatuena, baina baita irlandarra, judua eta txina-

tarra ere. Bide beretik dakigu gaizkile japoniar edo errusiarren antolakundeek beren ordezkariak zabaldu dituztela “askatasunen herrian”, Kolonbiako edo Mexikoko kartel latinoak ahortzi gabe. Euskaldun xaloak, berriz halakorik sortu gabeak ziren gaurdaino.

Hori aldatu ote da orain? Zintzoa eta prestua izateaz nekatu ote da artzainkume eta apezkondo herria? Eta hala balitz, hain txarra litzateke? Pentsa, zenbat aukera berri. Zenbat negozio –argiak eta ilunak– loratuko liratekeen, itsasoz haragoko gure senideekin harremanak estutzeko aitzakian. Zenbat literatura, zenbat zinema, deitura euskalduneko *scorsesetar* eta *cohendarren* eskutik. Eta, lobby bat, benetakoa, hango Kapitolioan gure interesak defendatzeko.

*Hitztripu* batekin hasi naiz lerro hauek idazten. Irakurleak begi parean duen izenburua idatzi nahi izan dudana lehen kolpean, bere kasa ibili zait gogo barrena. Inkontzientea edo. Halako moldez non “Euskal magia” gelditu zait idatzirik. Zuzenketa egina dago, baina zer pentsatua eman dit bi hitzen hurbiltasunak. ●



- 12.11 Lagun Artean Kantari
- 12.14 Ruper Ordorika
- 12.17 Inigo Muguruza beti gogoan, adiorik ez! (Sarrerak agortuta)
- 12.18 Kirmen Uribe eta lagunak
- 12.20 Zea Mays
- 12.21 DJ Bull
- 12.22 Olentzero jai
- 12.28 Mikel Urdangarin
- 12.31 Gabon zaharra 2019